



GIZARTE EKINTZAKO TOPAKETAK

MAHAI-INGURUA: Adineko pertsonen duintasuna eta eskubideak errespetatuaz.

Ma. Rosa Lunas Masnou, FOCAGG Federació d'Organitzacions Catalanes de Gent Gran, Dones i Familiako presidentea.

Gure Federazioak dituen hiru errealitateetatik egingo ditugu gure hausnarketak planteatu zaigun enuntziatuaren arabera:

ADINEKO PERTSONEN DUINTASUNA ETA ESKUBIDEAK ERRESPETATUAZ.

Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala oinarri hartuta, lehenengo **PRINTZIPIOA DUINTASUN** hitzak definitzen du eta hitza behin eta berriro aipatzen den arren, Printzipioa sistematikoki urratzen da. Hitz hori nabarmentzen da adineko pertsonen eskubide eta betebeharrei buruzko Gutun eta agiri guztietan, eta hori aztertuko dugu hasteko.

Ondoren **DUINTASUNA** eta **FAMILIA** kontzeptua aztertuko dugu, Familiaren Nazioarteko Urtearen 20. urtemuga dela eta NBEk egindako gomendioetatik abiatuta. Urte horren ondorioz sortu zen Plataforma per la Família Catalunya ONU-2014 eta plataforma horren sortzaileetako bat FOCAGG izan zen beste erakunde batzuekin batera eta bertako bigarren presidenteordea naiz.

Adineko pertsonen eskubideak direla eta, eskubide osoko herritarrak garela kontuan izanda, munduko herritar guztiok eskubide eta betebeharrak guztiak ditugu eta **OINARRIZKO BOST PRINTZIPIOETATIK JAIOTZEN DIRA:**

1.- **DUINTASUNA.**

2.- “Parte hartzea” – Herritartasun eta Justizia printzipioa.

3.- “Independentzia” – Berdintasun printzipioa.

4.- “Autorrealizazioa” – Askatasun printzipioa.

5.- “Arreta” – Elkartasun printzipioa.

Beraz, pertsona helduak edo “seniorrak” direla eta, aipaturiko printzipio horiek adin guztientzako gizartea eta denontzako mundu hobea eraikitzen lagunduko digute.



Era berean, AGE Platform Europek FOCAGGen lankidetzarekin europar hauteskunde hauetarako formulatu zuen MANIFESTUA aipatu nahi dut, FOCAGG Plataforma horretako Administrazio Kontseiluko kide aktiboa baita.

BERRIRO DIOGU adinekook parte hartze aktiboa izan behar dugula guri erasaten diguten politiketan lurralde mailako belaunaldi arteko elkartasunetik, FOCAGG EY2012 Manifestuan esaten genuen bezala, 2012a Zahartze Aktiboaren eta belaunaldien arteko elkartasunaren europar urtea izan baitzen.

BEGI ONEZ IKUSTEN DITUGU zahartzearen fenomenoaren esaten zaiona eta zahartzaroko rolean egondako aldaketa kualitatiboak. Demokrazia parte hartzailea praktikatzeko saiatu behar da, ez soilik kontsultiboa (**enpoderamendua**) eta atzera utzi behar dira finkatzen gaituzten estereotipoak eta lege eta araudi batzuen berriarazko egoerak, horiek garatzen dituzten programek ikuspegi desberdinetatik tratatzen baitituzte adineko pertsonak eta adinagatik diskriminaziora eramaten gaituzte (**adintasuna**).

Beraz, paternalismoan oinarritutako zahartzarokoaren "mistikatik" ihes egin beharra daukagu, eta hiru sektoreen artean, publikoaren, pribatuaren eta zibilaren artean, lankidetzarako loturak sortu behar ditugu.

Antolatutako gizarte zibilak Elkartearen eta Boluntarioen bidez erkidegoko ekintza planak sustatzen dituen honetan **ERABAKITZEKO** eskubidea erabil dezan, zahartze aktiboaren **BERRI EMAN** behar dugu, bizi-zikloko trebakuntza eta ikaskuntza handia baitu oinarrian.

Bigarrenik, eta esan bezala, argi utzi nahi dut **DUINTASUNA** errespetatzen dudala: helduen eskubideak eta betebeharrak **FAMILIATIK** pasatzen dira eta NBEK erakunde publiko eta pribatuekin lana egiteko proposatu digunez ekitaldien, jardunaldien eta berriarazko biltzarren bidez 2014 honetan, aprobetxa dezagun "Gizarte Topaketa" hau proposatutako hiru gaietan balizko ekintzak bilatzeko:
Familia: Pobrezia eta baztertzeta.- Familia: Belaunaldien arteko harremanak.
Familia: Lana eta familia uztartzea.

Eta amaitzeko

Herritarrengana gerturatzeko tresna legez, aipatu beharra daukat Hirian Giza Eskubideak Zaintzeko Europar Gutuna. Gutun hori Europako herri eta hirietako gizon-emakumeei zuzenduta dago eta bere hitzaurrekoan gogoratzen digu Giza Eskubideak unibertsalak, zatiezina eta elkarren mendeak direla.

Consell de Cent, 226 àtic 3a. – 08011 Barcelona – Tel./Fax: 93 451 12 04
e-mail: focagg@focagg.e.telefonica.net – Web: www.focagg.org

Inscrita amb el nº 381 – Secció 2a. del Registre d'entitats de la Generalitat de Catalunya

NIF: G62115449 –



AZPIMARRATZEN DU hirien administrazio onerako ezinbestekoa dela botere publikoek eskubideak errespetatzea eta bermatzea, gizarte kohesioa eta zaugarrienen babesa sustatzeko eta gizakiaren **duintasunaren** errespetuan, **tokiko demokrazian** eta denon bizi-kalitatea eta ongizatea hobetu ahal izateko eskubidean oinarritzen da.

Bartzelonak, Catalunyako hiriburuak, giza eskubideak babestu ahal izateko Europar Gutun hori sustatu eta sinatu zuen (2000/05/18) eta europar 500 hirik berresten dute urtero. Era berean, 2013an jarri zen indarrean **Carta de Ciutadania – Carta de Drets i Deures de Barcelona-** delakoa eta testu hori Consell de Ciutadania kide guztiek –eta gu bertako kide gara- aztertu eta adostu zuten eta gure hiriko Udalaren Osoko Bilkuran aho batez onartu zen.

Hausnarketa amaitzeko, jada gure artean ez dagoen portugaldar adineko bat aipatu nahi dut, Jose Saramago irakasle eta Nobel sariduna. Hau esan zigun Oporton 2. Gizarte Foroan “**gure garaiko erronkez**” ari ginela: “**Adineko pertsonen etorkizuneko iberiar eskutitz baterako oinarriak**” (Oporto 2006/05). “**Gutako bakoitzak gauden tokitik egunero egiten dugun lana da axola duena. Egiten ez badugu, hau da, une bakoitzean gure arazoentzako irtenbideak bilatzen ez baditugu, alferrik ari gara utopiei eta itxaropenei buruz hitz egiten.**”